



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

Espediente zk./Nº expediente: 2025IUBA0005

Gaia/Asunto: 2025/05/27 Udalbatzaren ohiko Osoko Bilkura/Sesión ordinaria de Pleno 27/05/2025

Udalbatzak 2025eko maiatzaren 27an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.

Errenteriako Udaletxean, 2025eko maiatzaren 27ko 18:30ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU), ondorengo zinegotziak elkartu dira:

ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU

- Alazne KORTA ZULAIKA
- Leire MAZIZIOR EGILEGOR
- Eneko DEL AMO JIMÉNEZ
- Bernar LEMOS TABERNA
- Itsaso CRUZ ETXEBERRIA
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Aitor ZORZANO MORRONDO
- Iñaki QUERALT COIRA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Montserrat LUIS CANO
- María Almudena DE LA TORRE FERNANDEZ
- José Alberto MUÑAGORRI BERDASCO
- Yosleidy Cristina FERRERA CEDEÑO

EAJ-PNV

- Elixabete MURUA MINDEGUIA
- Jaione FRANCO INSAUSTI
- Luis María OYARBIDE ARIZMENDI

ELKARREKIN ERRETERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde

- Yolanda MARTIN MARCOS

Acta de la sesión ordinaria de Pleno de la Corporación celebrada el día 27 de mayo de 2025.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 18:30 horas del día 27 de mayo de 2025, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU), las y los siguientes concejales y concejales:

ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU

- Alazne KORTA ZULAIKA
- Leire MAZIZIOR EGILEGOR
- Eneko DEL AMO JIMÉNEZ
- Bernar LEMOS TABERNA
- Itsaso CRUZ ETXEBERRIA
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Aitor ZORZANO MORRONDO
- Iñaki QUERALT COIRA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Montserrat LUIS CANO
- María Almudena DE LA TORRE FERNANDEZ
- José Alberto MUÑAGORRI BERDASCO
- Yosleidy Cristina FERRERA CEDEÑO

EAJ-PNV

- Elixabete MURUA MINDEGUIA
- Jaione FRANCO INSAUSTI
- Luis María OYARBIDE ARIZMENDI

ELKARREKIN ERRETERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde

- Yolanda MARTIN MARCOS



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

- Maite GARTZIA ONTIVEROS

PP ERRETERIA

- Antonio José VICENTE ZUBICOA

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du Iñaki Ruiz Alonsok (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

Bertan dago, egintza fedatzeko, Ainhoa Esnaola Zubeldia Idazkari orokorra.

Era berean, bertan dago Irune Soto Cotorro udal kontuhartzailea.

1. 2025eko apirilaren 29an ohiko bilkurari dagokion akta irakurri, eta egoki bada, onartzea. (2025IUBA0004).

Idazkariak Akta honetan akats bat dagoela azaltzen du: 10. orrialdean, “11 abstentzio” agertzen den tokian “11 aurkako bozka” adierazi behar duela adierazten du.

Osoko Bilkurak zuzenketa berresten du.

Jarraian, Antonio José VICENTE ZUBICOA Jaunak, PP Errenteria udal taldeko ordezkariak adierazten du beste akats bat dagoela 14. orrialdean. Zehazki, adierazten du Alkateak galderei lotuta egindako hitz-hartzean “entitate txiki” hitza falta dela.

Idazkariak adierazi du Udalean bideoaktaren formatua dagoela hobetsita eta idatziz, soilik, laburpen soil bat jasotzen dela, saioa modu orokorrean deskribatzen duena. Betebehar hori ezartzen du martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak. Horregatik ez dira hitzez hitz transkribatzen idatzizko formatuan akta guztiak.

Dena den, Antonio José VICENTE ZUBICOA Jaunak adierazten du, azalpen hori ez dela nahikoa,

- Maite GARTZIA ONTIVEROS

PP ERRETERIA

- Antonio José VICENTE ZUBICOA

No asiste excusando su inasistencia, Iñaki Ruiz Alonso (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

Asiste y da fe del Acto Secretaria general Ainhoa Esnaola Zubeldia.

Igualmente asiste la interventora municipal Irune Soto Cotorro.

1. Lectura y aprobación en su caso del acta correspondiente a la sesión ordinaria del 29 de abril de 2025. (2025IUBA0004).

La Secretaria general señala que hay un error en la página 10 del Acta, en concreto, señala que donde dice “11 abstenciones” debe decir “11 votos en contra”.

El Pleno ratifica la corrección.

A continuación, el Sr. Antonio José VICENTE ZUBICOA, representante del grupo municipal PP Errenteria, señala que en la página 14 hay un error. En concreto, indica que en la intervención que realizó la Alcaldesa en relación a las preguntas formuladas falta el término “entidad menor”.

La Secretaria expone que en el Ayuntamiento el acta tiene formato electrónico, y que el formato en papel contiene una mera descripción a efectos de dar cumplimiento al mandato que realiza el Decreto 128/2018, de 16 de marzo, a efectos de mantener un extracto en papel. Es por ello que no se transcriben con total literalidad en formato escrito.

En cualquier caso, el Sr. Antonio José VICENTE ZUBICOA señala que podría estar mejor definido, ya



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

eta berak adierazitakoa aktan islatu ezean, Alkateak esandakoa ahulduta/hutsalduta gelditzen dela. Zehazki adierazten du: ez dela gauza bera gauza bat eta bestea.

Alkateak adierazten du zehatz-mehatz zer esan zuen ez dela gogoratzen eta beraz bideoakta begiratu beharko lukeela. Hori horrela, aktaren onarpena mahai gainean uztea proposatzen du.

Beraz, aktaren onarpena mahai gainean gelditzen da hurrengo saiorako.

2. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak eta Zinegotzi-ordezkarienak, 1032 tik 1377 zk.ra (biak barne), eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3. 1374. delegatu-dekretuaren berri ematea: 2025ko Madalenetako omenduak izendapenak. (2025KPOL0003)

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4. Berri ematea: Eremu bateratuaren 2024ko likidazioaren aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasun txostena (tokiko sektore publikoa). (2024SALK0003).

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

5.Proposamena: Altzate 16 Areako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren bigarren

que, al final queda desvirtuada lo expuesto por la Alcaldesa. En concreto afirma que: no es lo mismo una cosa que la otra.

La Alcaldesa indica que no recuerda con total certeza qué es lo que dijo exactamente, ya que para ello debería volver a ver el videoacta. Por ello propone dejar el asunto sobre la mesa.

Por lo tanto, la aprobación del acta queda sobre la mesa para la siguiente sesión.

2. Dar cuenta de Resoluciones de la Alcaldesa y de Concejales Delegados nºs 1032 al 1377 (ambos incluidos), y de la Junta de Gobierno Local.

El Pleno queda enterado.

3. Dar cuenta del decreto de Delegada n.º1374 : nombramiento de homenajeadas/os en Madalenas 2025. (2025KPOL0003)

El Pleno queda enterado.

4.Dar cuenta: Informe de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera de la liquidación 2024 del perímetro consolidado (sector público local). (2024SALK0003).

El Pleno queda enterado.

5.Propuesta: Propuesta de acuerdo de aprobación definitiva de la Segunda modificación del Plan



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

aldaketaren behin-betiko onarpenaren akordio proposamena. (2025PESP0001).

BATZORDEBURUAK HIRIGINTZAKO BATZORDEARI EGITEN DION PROPOSAMENA.-

Altzate 16 Areako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren bigarren aldaketa.

Behin-betiko onespena.

2004ko otsailaren 3an, Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin etiko onetsi zuen Errenteriako Hiri antolamendurako Plan Nagusia. Ondoren, 2004ko uztailaren 27an behin betiko onespena eman zitzaion plan horren Testu Beteginari

Altzate Eremuko Hiri Antolamenduko Plan Berezia (HAPB) 2007ko uztailaren onartu zuen behin betiko Errenteriako Udalak eta Lezoko Udalak 2007ko azaroan.

2022ko urriaren 22an, Udalbatzak behin betiko onartu zuen Altzateko (Errenteria/Lezo) HAPBren aldaketa puntual eta partziala behin betiko onartzeko testu bategina, Arkilan, Arquitectos Asociados, SLP, Endara Ingenieros SL eta Pérez-Sabia Falces SL enpresek 2022ko urrian idatzi eta Altzateko Hitzarmen Batzordeak sustatutako dokumentuaren arabera.

Une honetan, Lezoko udal-mugartean dauden urbanizazioa eta eraikinak osorik amaitu dira (babes ofizialeko 16 etxebizitza eta 72 etxebizitza libre); Errenteriako udal-mugartean dauden lurzatiak (3/3, 3/4, 3/5 eta 3/6 PUR) egikaritzen ari dira, hirigintza-lizentzia egokien babespean (120 etxebizitza libre guztira).

Gaur egun gauzatzeke daude Errenteriako 3/7 (babes ofizialeko 39 etxebizitza) eta 3/8 (30

Especial de Ordenación Urbana del área 16 Altzate. (2025PESP0001).

PROPUESTA DEL PRESIDENTE A LA COMISIÓN INFORMATIVA DE URBANISMO.-

Segunda modificación del Plan Especial de Ordenación Urbana del área 16 Altzate.

Aprobación definitiva.

El Plan General de Ordenación Urbana de Errenteria fue aprobado definitivamente por el Consejo de Diputados de la Diputación Foral el 3 de febrero de 2004. Posteriormente su Texto Refundido, fue aprobado definitivamente el 27 de julio de 2004.

El Plan Especial de Ordenación Urbana (PEOU) del Área de Altzate fue aprobado definitivamente en julio de 2007 por el Ayuntamiento de Errenteria y en noviembre de 2007 por el Ayuntamiento de Lezo.

Con fecha 22 de octubre de 2022, el Pleno de la Corporación aprobó definitivamente el documento el Texto Refundido para la aprobación definitiva de la Modificación puntual y parcial del PEOU de Altzate (Errenteria/Lezo), según documento redactado en octubre de 2022 y elaborado por Arkilan, Arquitectos Asociados, SLP, Endara Ingenieros SL y Pérez-Sabia Falces S.L, y promovido por la Junta de Concertación de Altzate.

En este momento se ha finalizado íntegramente la urbanización y edificaciones emplazadas en el término municipal de Lezo (16 viviendas de VPO y 72 viviendas libres); hallándose en ejecución, al amparo de las oportunas licencias urbanísticas, las parcelas emplazadas en término municipal de Errenteria PUR 3/3, PUR 3/4, PUR 3/5 y PUR 3/6 (total de 120 viviendas libres).

Actualmente están pendientes de ejecución las parcelas de Errenteria PUR 3/7 (39 viviendas de



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

etxebizitza libre) lurzatiak, bai eta 1/1 (hotela) PUT lurzatia ere.

Testuinguru horretan, 2025eko otsailaren 4ko bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen dokumentua hasieran onartzea, jendaurrean jartzea eta, aldi berean, ingurumen-organoari galdetzea HAPBa aldatzeko dokumentua ebaluazio estrategikoaren mende jarri behar ote zen.

Dagozkion jakinarazpenak eta argitalpenak egin dira (GAO 2025/02/25 eta Gara 2025/02/27).

2025eko otsailaren 7an (841 erregistroa) Industria eta Trantsizio Ekologikoko Sailean, ingurumen-organoan, aurkeztu da ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedurari jarraitu behar zaion ala ez jakiteko kontsulta.

Udal espedientea Hizkuntza Politikako eta Berdintasuneko Sailaren txostenekin osatu da, eta biek adierazi dute ez dela beharrezkoa bere garaian igorritako informeari beste txosten bat ematea.

2025eko martxoaren 27an, Zu! Arreta Zerbitzuak ziurtagiria egin du, jendaurrean egon den aldian alegaziorik aurkeztu ez dela adieraziz.

2025eko maiatzaren 14an udal aholkulari juridikoak dagokion txosten juridikoa egin du.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97. eta 96. artikuluetan, plan eta programen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 15. artikuluan eta Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 7.2 artikulua.

VPO) y PUR 3/8 (30 viviendas libres), además de la parcela PUT 1/1 (hotel).

En este contexto, en sesión de 4 de febrero de 2025, la Junta de Gobierno Local acordó aprobar inicialmente el documento, someterlo a un período de información pública y, a su vez, consultar al órgano ambiental sobre la necesidad de sometimiento del documento de Modificación de PEOU a evaluación estratégica.

Se han efectuado las notificaciones y publicaciones (GAO 2025/02/25 y Gara 2025/02/27) pertinentes.

El 7 de febrero de 2025 (registro 841) se ha presentado ante el Departamento de Industria y Transición Ecológica, órgano ambiental, la consulta relativa la necesidad de seguir o no el procedimiento de evaluación ambiental estratégica.

El expediente municipal ha sido complementado con los informes del Departamento de Política Lingüística y de Igualdad, manifestando ambos la innecesariedad de emitir nuevo informe al ya emitido en su día.

El 27 de marzo de 2025, el Servicio Zu! Arreta Zerbitzua ha emitido certificado señalando que durante el período de información pública no ha sido presentada alegación alguna.

Con fecha 14 de mayo de 2025, la asesora jurídica municipal ha emitido el informe jurídico correspondiente.

Considerando lo dispuesto en los artículos 97 y 96 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, así como en el artículo 15 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación estratégica de planes y programas y art. 7.2 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística.



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

Hirigintzako delegatuak egindako erabaki-proposamena eta Hirigintzako aholkulari juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

2025eko maiatzaren 20an, Hirigintzako zinegotzi delegatuak proposatuta, Lurralde batzordeak gai honen aldeko irizpena eman zuen.

Udalbatzak, aldeko 20 botorekin (ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ-PNV, ELKARREKIN ERRETERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde y PP ERRETERIA), aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Behin-betiko onartzea Altzateko (Errenteria/Lezo) Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren 2. aldaketa, Errenteriako udalerriri dagokionez, 2025eko urtarrilean Rakel Zapirain Lizuain abokatuak egina. Onarpen hori Eusko Jaurlaritzari ingurumen-txosten estrategikoari buruz egin beharreko kontsultatik ondorioztatzen denaren baldintzapean ematen da.

Bigarrena Bidaltzea, argitaratu aurretik, plan bereziaren ale bat (ohiko moduan eta euskarri magnetikoan) Gipuzkoako Foru Aldundiari, hark Erregistroko depositoan gorde dezan.

Hirugarrena.- Argitaratzea akordioa oso-osorik, planaren araudiarekin batera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean. Era berean, akordio hau probintzian gehien saltzen den egunkari batean argitara emango da.

Laugarrena.- Jakinaraztea erabaki hau interesatuei eta baita Udal errenta Departamentuari.

Vista la propuesta de acuerdo del delegado de Urbanismo, y la conformidad dada por la asesora jurídica de Urbanismo a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Visto que en fecha 20 de mayo de 2025, a propuesta del delegado de Urbanismo, la comisión de Territorio dictamina favorablemente el presente asunto.

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, con 20 votos a favor (ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ-PNV, ELKARREKIN ERRETERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde y PP ERRETERIA),

ACUERDA

Primero.- Aprobar definitivamente la 2ª Modificación del Plan Especial de Ordenación Urbana de Alzate (Errenteria/Lezo), en lo que al término municipal de Errenteria se refiere, elaborado con fecha de enero de 2025 por la abogada Doña Rakel Zapirain Lizuain, aprobación que se otorga de forma condicionada a lo que resulte de la consulta a realizar ante el Gobierno Vasco en relación al informe ambiental estratégico.

Segundo.- Remitir, con carácter previo a su publicación, un ejemplar del presente plan especial (en soporte magnético y convencional) a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su depósito en el Registro.

Tercero.- Publicar el contenido íntegro del presente acuerdo en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, junto con la normativa del plan. Igualmente, se publicará el presente acuerdo en uno de los periódicos de mayor circulación de la provincia.

Cuarto.- Comunicar el presente acuerdo a los interesados así como al Departamento de Rentas y Exacciones.



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

6. "BIEL kontsumitzaileen bizitza elkarte"k aurkeztutako mozioa (2025IMOZ0006).

HAUXE ESKATZEN DIOGU UDALAREN OSOKO BILKURARI

Aurreko txostenean azaldutako guztia aintzat hartuta, Udalaren Osoko Bilkurari eskatzen diogu mozio hau onets dezala:

«Udal honek, herritarren eta haien interesen ordezkari den aldetik:

1. Uste du arrazoizko zalantzak daudela COVID-19aren aurkako txertoaren egokitasunari buruz, kontuan hartuta erantsitako txostenean jasotako informazio ofiziala eta COVID-19aren ondorioz nahiz gaixotasun hori zutela hildakoen datuak.

2. Uste du aski motibo dela arrazoizko zalantza hori, datu ofizialek berek eragindakoa, udal honek moratoria eska dezan eta Euskal Administrazio Sanitarioari eska diezaion inokulazioak geldiaraz ditzala.

3. Uste du, halaber, beharrezkoa dela argitaratzea txerto horrek eragindako ondorio kaltegarriak buruzko berriazko informazioa, eta, horrekin batera, azterketa epidemiologiko sakon bat egitea, behin betiko ondorioak ateratzeko».

Gaixotasun bat sendatzeko botika berri bat zirkulazioan jartzen denean, ikusten bada botika hori hartu eta gora egiten duela gaixotasun horrek, ondorioa da botika horrek ez duela balio aztertutako helbururako, eta, beraz, zirkulaziotik kendu behar dela.

Udalbatzak, aurkako 20 botoekin (ORERETA/ ERRETERIAKO EH BILDU, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ-PNV, ELKARREKIN ERRETERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza

6. Moción presentada por la asociación "BIEL kontsumitzaileen bizitza elkarte" (2025IMOZ0006).

SOLICITUD AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO

Tomando en consideración todo lo expuesto en el informe precedente, solicitamos que el Pleno del Ayuntamiento, apruebe la siguiente Moción:

"Este Ayuntamiento, como representante de la ciudadanía y sus intereses:

1. Considera que, con la información oficial y con los datos de los fallecidos por/con covid recogidos en el informe adjunto, hay dudas razonables sobre la bondad de la vacuna del Covid19.

2. Considera que esa duda razonable derivada de los propios datos oficiales, es motivo suficiente como para que este ayuntamiento solicite una moratoria y pida a la Administración Sanitaria Vasca, la paralización de las inoculaciones.

3. Considera igualmente necesario, que junto con la publicación de la información expresa sobre los efectos adversos generados por esta vacuna, se haga un estudio epidemiológico exhaustivo con el fin de sacar conclusiones definitivas."

Cuando se pone en circulación un nuevo medicamento para curar una enfermedad, si a resultados de la toma de este medicamento, se observa un aumento de dicha enfermedad, la conclusión es que ese medicamento no sirve para el objetivo estudiado y, por lo tanto, debe de ponerse fuera de circulación.

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, con 20 votos en contra (ORERETA/ ERRETERIAKO EH BILDU, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ-PNV, ELKARREKIN ERRETERIA Podemos, Ezker



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

Verde y PP ERRETERIA), aho batez,

Anitza-IU, Alianza Verde y PP ERRETERIA),

ERABAKI DU

ACUERDA

“BIEL kontsumitzaileen bizitza elkarte”k aurkeztutako mozioa ez onartzea..

Rechazar la Moción presentada por la asociación “BIEL kontsumitzaileen bizitza elkarte”.

7. Galdera-eskariak.

7. Ruegos y preguntas.

Antonio Vicente Zubicoa, PP ERRETERIA udal taldeko zinegotziak hiru galdera egin ditu:

Antonio Vicente Zubicoa, concejal del grupo municipal PP ERRETERIA, ha planteado tres preguntas:

1. “EH Bilduk gobernaturako beste gertuko Udaletan lan-postuen balorazioak egin dira eta zergatik Errenterian ez da egin? Izan ere, enpresa-batzordea aspalditik eskatzen ari da”.

1. “¿Por qué en otros Ayuntamientos cercanos gobernados por EH Bildu se han llevado a cabo valoraciones de puestos de trabajo y en Errenteria no, pese a que el comité de empresa lo está solicitando desde hace tiempo?”.

2. “Zergatik eguneratu dira Udal honetan langile batzuen soldata-baldintzak, Alkatearen beraren hitzetan, eta beste batzuei, udaltzainei adibidez, behin eta berriz atzeratzen jarraitzen zaie edozein aurrerapen, horiek adosteko data zehatzak barne?”

2. “¿Por qué en este Ayuntamiento se han actualizado las condiciones salariales de algunos trabajadores, según las palabras de la propia Alcaldesa, mientras que a otros, como por ejemplo el personal de la Policía Municipal, les sigue retrasando una y otra vez cualquier avance, incluso negándose a pactar fechas concretas para ello?”

3. “Legegintzaldi honetan, EH Bilduko beste gobernu batzuek erabili zuten estrategia bera errepikatuko al da, eta sindikatuarekin konpromisoa hartuko da, gero akordioak ez betetzeko, beste gobernu-talde batzuk zirela argudiatuta?”.

3. “¿Se va a repetir en esta legislatura la misma estrategia que ya utilizaron otros gobiernos de EH Bildu, comprometiéndose con los Sindicatos para luego incumplir los acuerdos y escudarse en que sudándose en eran otros equipos de gobierno?”.

Aizpea Otaegi Mitxelena alkateak zuzenean erantzun die galdera hauei:

La Alcaldesa, Aizpea Otaegi Mitxelena responde directamente a estas cuestiones:

“Lehenengo galderari erantzunez, langileei eurei emandako erantzunean argi adierazi genuen gure posizioa zein den. Ondo iruditzen zaigu langileen balorazioa egitea eta gainera prozesu horri ekiteko konpromisoa ere hartu eta adostu dugu sindikatuarekin 2026. urterako. Beraz, uste dugu gure konpromisoa argia dela eta zilegitasun osoa daukala sindikatuarekin batera hartu den neurrian. Gainera, 2025. urterako

“Respondiendo a la primera pregunta, en el escrito dirigido a los propios trabajadores indicamos claramente cuál es nuestra posición. Nos parece bien que se haga una valoración de los puestos de trabajo y además nos hemos comprometido y acordado con los sindicatos iniciar este proceso para el año 2026. Por lo tanto, creemos que nuestro compromiso es claro y que tiene toda la legitimidad en la medida en



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

beste konpromiso batzuk ere baditugu.

Beraz, nik esango nuke konpromisoa hartuta dagoela eta konpromisoa bete egingo dugula, azken galderari erantzunez, gainerako konpromiso guztiak betetzen ditugun bezala. Guk hartzen ditugun konpromisoak bete egiten ditugu, ez diegu uko egiten eta ulertzen dut konpromisoren bat bete ez badugu zein den esan egin beharko litzatekeela, izan ere, horrela ezean baieztapen hori edukiz hustuta gelditzen da.

Lan-postu zehatzetan aldaketak egin izan badira, izan da azterketa zehatzak egin direlako, departamentu eta lan-postu jakinenak. Gainera uste dut justu aipatu duzun departamentuan egin direla lan-postuen balorazioak eta egokitzapenak eta ez dela justu departamentu bat era horretako erabakiak bizi ez dituen.

Beraz, erantzun hauekin esango nuke galderak erantzunda gelditzen direla”.

Hitz hartze honekin, Alkateak adierazi dio PP Errenteriako ordezkariari ea beste galderarik duen, bestela, bere aldetik, saioa amaitutzat joko dela.

PP Errenteria udal taldeko ordezkariak adierazi du ez duela beste ezer gehitzekorik.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 18:45ak zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

que se ha adoptado conjuntamente con los sindicatos. Además, ya tenemos otros compromisos para el año 2025.

Por tanto, yo diría que el compromiso ya está y que lo vamos a cumplir, tal como hacemos con los demás compromisos (respondiendo así a la última pregunta). Nosotros cumplimos los compromisos que asumimos, no renunciamos a ellos y entiendo que si no hemos cumplido algún compromiso habría que decir cuál es, porque si no es así esa afirmación queda vacía de contenido.

Si se han realizado modificaciones en algunos puestos de trabajo, ha sido porque se han realizado análisis concretos en determinados departamentos y puestos de trabajo. Además, en relación al departamento que has mencionado, creo que sí que se han hecho nuevas valoraciones.

Por lo tanto, con estas respuestas diría que las preguntas quedan contestadas”.

Con esta intervención, la Alcaldesa indica al representante del grupo municipal PP Errenteria si tiene alguna otra pregunta, que en caso contrario, por su parte, se dará por finalizada la sesión.

El representante del grupo municipal PP Errenteria señala que no tiene nada más que añadir.

Y sin más asuntos de los que tratar, la presidenta levanta la sesión, siendo las 18:45 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta. La secretaria general.

Errenteria, 2025eko maiatzaren 27a

Errenteria, 27 de mayo de 2025

Idazkari orokorra / Secretaria general

Ainhoa Esnaola Zubeldia



ERRETERIA
UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaria General



EKS | CSV: ESKU3b9c7da9-d7c0-4a69-81c6-d6b72b26f08a

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025IUBA0005-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA)

--